

KRISTAUAGO ETA EUSKALDUNAGO

Milafranga, 1984-VI-25

Xavier Diharce

Mezako hitzaldia:

Egun hartan Besta-Berri zen; aita Xavier Belokekoak zuen meza-ko hitzaldia.

“*Ogi hau jaten duena nitaz biziko da... biziko da betiere*”. (Jn. 6,57, 58).

Milafrangar maiteak, euskaltzale adiskideak,

Aurten ehun urte, herri huntako Etxelekuan zortzigarren haur bat sortzen zitzaioten: mutiko bat, apeztu eta apezpikutu behar zena.

Hamar urtetan, begiak goiz-argia bezein erne eta izarrez beteko gau iluna bezein gogoetatsu, hamar urtetan hartu zuen lehen aldikotz Jesus Jaunak munduari ekarri Ogia.

Geroztik eta hiltzerainoko gora-beheretan, Ogi hau izan du bihotzaren hazkurri, biziaren iguzki.

Ogi horrek eman dio, hameka urtetan, amaren heriotzeko bihotz-mina gainditzekoa.

Ogi horrek eman dio, hamabi urtetan apezterat joateko gogoia.

— Anaietan bazuen bat, sei urtez zaharragoa: bazoan maiz harekin Mendigain alderat, handik euskal-bazterten mirestekoa eta Jainkoaren Erreinuko mugen amesteko.

Gogoan zuken jadanik, apezpikutzean hautatuko zuen hitz-lemak diona: *Albae sunt ad messem*, ogi-landak xuhailtzen, ontzen ari dire eta biltzaileen beha daude.

Udazkenean Larresoroko apezgaietan sartzen zen; eta ondoko udaberrian joaten zitzaion anaia, hemeretzi urtetan, fraidetzerat.

* * *

– Ez zitaken Besta-Berri baino egun egokiagorik hauta, *Mgr. St. Pierre-n* ehungarren urtea ospatzeko.

Bere bizian goren-goreneko urratsa, hedadura handieneko lana zoin izan du-eta? Ez ote, hogoi-ta bederatziko Eukarizti-biltzar nausia Baiona-n muntatzea?

“*Ni naiz Ogi bizia*” errana du Jesus Jaunak. Egia zaukan hori *St. Pierre* jaun apezak, egia eta den egiarik ederrena.

Lurreko ogia jaten dugunean, ogia gutarutzen dugu eta guretzen; zeruko Ogia jaten dugunean aldiz, Kristo-ganatuak gare eta Kristo-tuak. Zerurako egarria emana zaiku bai eta jaidura tzarrerri nausitzeko indarra.

Zeruko Ogia hartzen dugunean, gutan bizi da Jesu-Kristo: gure lanak ta minak harekilakoak dire, harenak dire; eta gure bizi guziaz eginak gare Jainkoaren Erreinuaren eraikitzaile.

* * *

– Gaur Euskal-Herriko apez guzien artetik, zertako gertatzen zait neri Milafrangar Apezpiku zena, Besta-Berriko meza huntan, aipatzea?

Fraide bati zoakon beharbada egun mintzatzea, fraidetu zitzaion anaiak ixil-ixila ereman baitu bizia, haren urrundik laguntzaile. Bere hautuz mutu egoitea ez aski, itsu egona da lan-ixtripuz bere azken urtetan. *Mgr. St. Pierre* hil den urte hartan berean, hura ere pausatu da (*).

Ez dut anaia ezagutu, baina *Mgr. St. Pierrekin* bat izan ditut haremanak: hiru aldiz izan naiz haren etxean.

Lehen aldian, apezpikutu zen eta laster, Afrikako nere osaba aitaxuriarekin: hamabi urte nituzken eta entzun nituen Kabiliar apezzen beharraz mintzatzen, bai eta Berber mintzairak euskararekin zuken eiteaz.

Bigarren aldian, Alemanen urtetan. Lepo makurtuen ta buru apalduen urte beltz hoitan, xut baitzaukan harek beti burua, izan nintzaion

(*) 1877-an, martxoaren 21-an sartu zen Jean-Marie St. Pierre Divielle-ko fraiditxean; betiko botuak 1903-an egin zituen, martxoaren 19-an.

Landesetan zen fraiditxe hori, fraidegai eskasez, 1932-an hertsia izan da; eta gure anai Jean-Marie Bretaniako “*La Meilleray*”-rat joan da eta han hil.

adiskide batekin ikusten. “*Aintzina*” ilabetekaria sortu edo berpiztu nahi ginuela aditurik, bere kar handiaz sustatu gintuen.

Hirugarren aldian, ordukotz fraidetua, ekarri niozkan Beloke-ko gazteak agurtzerat; eta, Elizako kantuen alde, lan batzu egiten eta zabaltzen hasi ginenean, hitz hau igorri zautan: “*Aspaldiko ene ametsa zen Beloke-n asenta zadin, bertzeak bertze, zenbeit urte hautan ezarri duzuen laguntza. Eskuararen eta Eskualdunen sustengu, Jainkoaren legean eta arbasoen bidetan. Jainkoak lagun ditzala zuen xedeak*” (10/8/51).

– Lau ilabete geroago hiltzen zitzaikun, berrogoi-ta hamekan. Ez ziren ordukotz salmoak euskararatuak, ez eta beraz herrietan kantatuak; ez zen oraino apez ta fraide multzo bat liturgiaren euskararazten hasia, meza saildua ere ez zen oraino euskaraz emana eta Erromak onartua.

Hoik guziak ikustean eta aditzean, nola zen loriatuko!

* * *

– Berrogoi zortzian, hiru urte hil-aintzin, hitzaldi bero bat egin baitzuen Miarritzeko euskal-biltzar handian, entzuna izan dut: “*Ai! Haren burua, bihotza hortzetan mintzatu denean...*”.

Haren oihuaren indarra, haren suaren ederra, erdal-jendez eta udatiarrez ondatua zen Miarritze hortan, euskal-sume herabetuerei bota diotenean: “*Gure beldur dire, gure beldur!*”.

– Ezin berriz piztuz ginabiltzan gerla-ondoko urte hoitan, hor zagon Milafrangar Apezpikua: euskal-izaitearen lekuko, geroaren mol-datzaileen aintzindari, Jainko-zaleen ta euskaltzaileen buru.

Apezpiku handi izana eta orai kurutze-ekarle handiago, bazabilan, betiko sineste berean, Iguzki sailduari so: “*Ogi hau jaten duena biziko da betiere*”.

* * *

– Hau erran izan daut: “*Bere mendietarik ikusten ditu Euskaldunak Errege ta Errepublikak sortzen, Errege ta Errepublikak hiltzen; eta Euskalduna badago euskaldun. Horrela dagola beti xut, bere gizontasunean eta bere sinestean*”.

– Oraiko nahasmendu eta herritarren arteko etsaigoak ikusiz, erranen zuen aintzinat:

*Zeruko Ogiak haz ditzala euskal-bihotzak, bat izan ahal ditezen.
Bat izanez geroz, Kristo beren artean eta beren lokarri izanen
dute; eta Kristo gurekin bada, gurekin ari bada,
guzien gatik ere, bizirik egonen gare
gero-ta euskaldunago, gero-ta kristauago,
bai gaurko mundu berrian, bai geroko bizi betierekoan.*